

gora 
sanmar
tzia
lak

IRUN
2014





TRADIZIO BAT
ETORKIZUNEAN BAT
EN EL ALARDE,
TAMBIÉN IGUALES







KANTINERAK



- 1.- TAMBORRADA: Itsaso Sánchez
- 2.- BANDA: Libe De la Fuente
- 3.- ZALDITERIA: Marie Eizmendi
- 4.- LANDETXA: Maddi Sanz
- 5.- BIDASOA: Mara Álvarez
- 6.- OLABERRIA: Maialen Delgado

- 7.- AMA XANTALEN: Garazi Ursua
- 8.- LAPITZE: Aitziber Tranche
- 9.- ANAKA: Zuriñe Campo
- 10.- SANTIAGO: Francisca Alzamora
- 11.- ARTILERIA: Virginia Reguero



Gora Irun, Gora Sanmartzialak

Sanmartzialak heldu dira eta, haiekin batera, Alardeaz lehendabizikoz gozatzea erabaki dutenen urduritasun eta emozioak; gaurgero txilibitua eta erredoblea jotzen ikasteko tailerretan hasiko ziren. Postu berria duena ere urduri egongo da, txilibitukabo dela, konpainiako agintari dela, zernahi dela. Eta kantinerak ere bai, aurten abanikoaren eta tolesdun gonaren truke danborra edo eskopeta bertan behera utzita. Eta hatxeroen kaboa, aurten lehendabiziko aldia duelako Alardearen arrankadan buru. Eta zer esanik ez jeneral berria, berak ere lehendabizikoz hartu duelako bere gain San Martzial eguneko Alarde osoaren buru izateko ardura.

Urduri eta hunkiturik denok, konpainia berri bat sortu delako Santiago auzo jator petoan, ekainaren 30ean kalerik kale ibiliko dena.

Hunkiturik daude gizon-emakume horiek guztiak, zaharrak eta gazteak, lehendabiziko urtean denenek ongi egin nahi dutelako. Eta hunkiturik dagoeneko beste lagun askorekin batera parte hartzen hasiak direlako urtetik urtera handitzen eta hedatzen ari den jai batean, Alarde eskuzabal batean. Eskuzabala, bai, bere baitan poz-pozik eta harro hartzen dituelako jaiari parte hartu eta gozatu nahi duten guztiak, ez baitu inor ere bazter uzten, ongi etorria denei eginda.

Jaiak berez dira elkar topatzeko eta egoteko tokiak eta uneak, baita gure hirian ere; guk behinik behin horren alde egiten dugu, jai herritar guztien errespeturako biltokia izan dadin.

Egin behar dugun Alardea elkarrekiko begirunezkoa, kolore bizikoa, jai girokoa, barneratzekoa eta gozamenekoa izango da eta.


Llegan los San Marciales, y los nervios y la emoción de todos y todas las que por primera vez han decidido salir y disfrutar del Alarde, y para ello se apuntan a los talleres para aprender a tocar el txilibito o el redoble. Y de quienes se estrenan en puestos nuevos porque este año han asumido la responsabilidad de ser cabo de txilibitos, o mandos en su compañía. Y de las cantineras, que este año han decidido cambiar el redoble o la escopeta por el abanico y la falda plisada. Y los nervios del cabo de Hacheros que este año protagoniza su primera arrancada abriendo el Alarde, y la emoción de la nueva General que ha asumido el reto de conducir el Alarde el día de San Marcial.

Nervios y emoción porque una nueva compañía, la del emblemático barrio de Santiago, desfilará por primera vez por nuestras calles el próximo día 30.

Emoción, porque todas estas personas, mujeres y hombres, jóvenes y mayores, todas quieren hacerlo muy bien porque es su primer año. Y emoción, porque saben que están formando parte junto con muchas otras personas de una fiesta, un Alarde que cada año crece y se ensancha; un alarde generoso que se siente feliz y se enorgullece de acoger en su seno a todas las personas que quieren disfrutar y gozar con esta fiesta, que no excluye a nadie, donde todas y todos son bienvenidos.

La fiesta es por excelencia un espacio para el encuentro y el disfrute. También en nuestra ciudad, y nosotros queremos apostar y contribuir a que además sea un espacio para el respeto y reconocimiento entre todos nuestros conciudadanos.

Vamos a hacer un Alarde que será un alarde de respeto, colorido, alegría, inclusivo y gozoso.



san pedro san martzial jaiak 2014

16-27 Ekaina
Junio

Konpainien entsaioak (kontsultatu ordutegiak web orrian).
Ensayos de las compañías por barrios (consultar el horario en la página web).

28 Ekaina
Junio

20:15 Kantineren aurkezpena Junkal plazatxoan.
20:15 Presentación de cantineras en la plazoleta de Junkal.

29 Ekaina
Junio

16:30 - 19:40 Alardearen ikuskapena auzoetan.
16:30 - 19:40 Revista de alarde por barrios

21:00 Banda eta Tamborradaren entsaioa Urdanibia plazan
21:00 Ensayos de banda y tamborrada en la plaza de Urdanibia.

30 Ekaina
Junio

05:45 Alborada Erromes plazan.

06:00 Alardearen Diana Junkal plazatxoan.
06:00 Diana del Alarde en la plazoleta del Junkal.

10:20 ALARDEA
10:20 ALARDE

Eguerdian: Zinaren betetzea San Martzial mendian.
Mediodía: Cumplimiento del voto en el monte San Martzial.

17:30 ALARDEA
17:30 ALARDE

www.alardepublico.org

